

SEXU NORTASUNA

Askotan jazarpenaren biktima izan diren transgeneroak, eskubideen aldeko lanean

📁 JENDARTEA / joseangel.oria@gaur8.info

Pertsona transexualen bizi baldintzak asko aldatzen dira munduko leku batetik bestera. Askotan egurra eta jazarpena besterik ezagutu ez dituzten gizakiok eskubide esanguratsuak eskuratu dituzte leku batzuetan, European eta AEBetan batez ere, beste batzuetan atzera egiten duten bitartean.

Datu ofizial gutxi eta ezjakintasunetik sortutako zurrumurru gehiegi. Horixe litzateke pertsona transgenero, transexual edo transen inguruan dugun errealitatea. Izan ere, herrialde askotan ezkutatu egin behar du te beren sexu nortasuna eta horrela ez dago datu fidagarriarik biltzerik.

Auzi honetan erabili beharreko terminologiaren inguruko eztabaida ere zabalik dago oraindik. France Presse agentziak egin berri duen txosten ba-

ten arabera, *transgenres* hitza litzateke egokiena frantsesez, *transgender* ingelesez eta *transgenero* gaztelaniaz. Aipatu txostenak dio *transexual* hitza gero eta gutxiago erabiltzen dela, baina erabiltzen da oraindik. *Trans* hitzak ere bere espazioa lortu du, eta laburrena denez, hemendik urte batzuetara horixe nagusitu daiteke. Ikusi egin behar.

SUFRIMENDUA

Amagoia Mujikak honela esplikatzen zuen zer den transexuala izatea GAUR8n bertan, otsailaren 6ko alean: «Jaiotzeko or-

Nisha Ayubek 37 urte ditu eta bi aldiz saiatu zen bere buruaz beste egiten, transexualek Malaysian bizi duten egoeraren eraginez. Orain besteei laguntzeko elkarte batean egiten du lan. Manan VATSYAYANA | AFP

duan genitalei begira zehazten da pertsonen sexu identitatea. Batzuetan, baina, inposatutakoa eta benetako identitatea ez daztoz bat». Aingeru Mayor sexologoarekin egindako elkarrizketa hartan garbi geratu zen sufri-mendu iturri dela zakila duen neska edo alua duen mutila izatea: «Transexualitate egoeran dauden pertsonen suizidio saia-kera tasa %41 ingurukoa da. Bistaratzeko ari den errealitatea da, urte luzez ezkutuegi gorde dena eta modu aldrebesean ulertu».

AEBetan orain bost urte egin zen ikerketa aipagarri baten arabera, herrialde erraldoi hartako populazioaren %0,3 inguru transgeneroa da. Oraindik populazio handiagoa duen Indian egin diren kalkuluen arabera, bertako 500.000 lagun inguru daude egoera horretan, 2014ko errolda abiapuntutzat hartuta.

Transgenero izateko ez da beharrezkoa ez inolako tratamendurik jasotzea ez ebakuntza egitea. Aluarekin jaiotako mutila gizon transgeneroa izango litzateke, eta zakilarekin jaiotako neska, emakume transgeneroa.

Sexu nortasuna sexu joerarekin nahastea oso ohikoa da

oraindik ere, baina adituek nabarmentzen dute emakume transgenero batek edozein joera sexual izan dezakeela: homosexuala, heterosexuala ala bisexuala izan daiteke. Gauza bera esan daiteke gizonen inguruan. Hori bai, trans pertsonen eskubideen aldeko ekintzaileei ez zaie batere gustatzen «sexu aldaketa» espresioa, ebakuntzari buruz aritzeko. Diote pertsona horiek gorputza egokitu nahi dutela benetan diren errealitate-ra, ez direna aldatu. Nahiago dute «sexu erreasignazio prozesuaz» hitz egin.

ZAHARKITUTAKO LEGEAK

AEBetako kazetari lesbiana eta gayen elkartearen arabera, pertsona transgenero bat bere ezaugarri fisiko eta sexualak aldatzeko prozesuan sartuta dagoenean, «trantsizioan» edo «trantsituan» dago.

Trantsitu horrek ez du derri gorrez ebakuntza edo hormona tratamendurik eskatzen, kasu batzuetan nahikoa izaten baita gizaki horren ingurukoei gertatzen ari dena, edo gertatu dena, azaltzea: izen edo estatus aldaketa, esaterako.

MALAYSIAKO EKINTZAILE TRANSGENERO BATEN BORROKALDI LUZEA

Nisha Ayubek Malaysian komunitate transgeneroak bizi duen kalbarioa jasan behar izan zuen: mespretxua, indarkeria, atxilotetak eta espetxean jasandako eraso sexuala. «Benetako gizon» bihurtu zedin giltzaperatu zuten.

Egun 37 urte dituen emakume transgenero hau bi aldiz ahalegindu da bere buruaz beste egiten. Gehiengo musulmana duen herrialdean, jaiotzan genitalen arabera ezarritako sexua eta benetako nortasuna bat ez etortzea ez da batera erraza; hala, transexualen aurkako errepresioak erabat suntsituta zeukan Ayub. Transgenero ekintzailearen arabera, herrialdeko lege zorrotzen eraginez, gero eta eskari gehiago iristen dira bere elkartera, eta gero eta bazterketa gehiago jasan behar izaten dute. «Ez eskubiderik ez duintasunik izango ez bazenu bezala tratatzen zaituzte», adierazi dio AFP agentziari.

Amorrua alde batera uztea lortu zuenean, LGBT lesbiana, gay, bisexual eta transexualen eskubideen aldeko ekintzaile bihurtu zen Nisha Ayub. Orain dela hiru hilabete, martxoan, International Women of Courage izeneko saria ematen dioten lehendabiziko emakume transgeneroa bihurtu zen. Sari hori AEBetako Estatu



Beste arloetan gertatzen den moduan, pertsona transgeneroen baldintzak izugarri aldatzen dira herrialde batetik bestera. Human Rights Watch gobernuz kanpoko erakundeak egindako txosten batean jasotakoaren arabera, 80 herrialdetan harreman homosexualak izatea edo LGBT komunitatearen eskubideak defenditzea zigortuta dago: kasu batzuetan, gainera, heriotza zigorrarekin.

AEBetan dituzte egun legerik aurreratuenak, baina estatu bakoitzak bere ezaugarri propioak ditu. Europar Batasunari dagokionez, Europako Parlamentuak 1989an onartutako ebazpen baten arabera, transgeneroak baztertzea debekatuta dago, baina 28 herrialdeetako 13tan baino ez dago espresuki debekatuta talde honen aurkako indarkeria, Transgender Europe elkar-teak emandako datuen arabera.

INDIAKO BILAKAERA

Indian ere asko aurreratu dute gai honen inguruan. Ikasketekin jarraitzeko edo lana aurkitzeko arazo asko izaten dituztenez, trans asko kalean bizi dira, baldintza penagarrietan, eta ka-

Departamenduak ematen du munduko «emakumerik ausartenak» nabarmentzeko.

Gona nasai bat eta mahuka luzeko alkandora jantzita agertu da hitzordura. Ekintzaile musulmanak esplikatutako digu bere etxean baztertu egiten zutela, joera sexualen eraginez. 2000n, 21 urte zituela, Polizia erlijiosoak atxilotu egin zuen. Trabestismoa debekatzen duen lege batean oinarrituta, xarian oinarritutako auzitegi batek (musulmanak nahastuta dauden gai erlijioso zibilak aztertzen dituenak) hiru hilabeteko kartzela-zigorra ezarri zion. «Berriz benetako gizon musulman bat bihur nendin», azaldu du Ayubek, epaileak esan zituen hitzak gogora ekarriz.

Kartzelara bidali zutenerako, «gizon izatetik emakume izatera doan trantsitua erabat» bukatuta zuela esan digu, gehiago zehaztu gabe, bere komunitateko pertsona askok egiten duten moduan, xehetasun horiek pribatutzat hartzen baititu. Hala ere, gizonezkoen espetxe batera eraman zuten. Nisha Ayubek ez du sekula ahaztuko kartzelako funtzionario batek gainerako presoen aurrean titiak erakustera behartu zuela. Behin, gainera, preso horietako batzuek felazioak egitera behartu zuten.

HRW Human Rights Watch gobernuz kanpoko erakundeak 2014an egin zuen txosten batean esaten da Malaysia dela pertsona transgeneroentzat munduan

dauden herrialderik txarrenetako bat. Nisha Ayubentzat egoera jasanezin hura gehiegi izan zen. Espetxean bertan aurrena, eta aske geratu eta gero ondoren, bere buruaz beste egiten saiatu zen. Esperientziak traumatizatuta zegoela, aldi txiki batez langile sexual ere izan zen. Eskubideen aldeko lanak atera zuen zulo hartatik. 2010ean Justice for Sisters erakundea sortzen lagundu zuen, transexualek jasaten duten jazarpena salatzen duen taldea alegia. Eta 2014an SEED fundazioa sortu zuen, pertsona transgeneroei eta baztertuta dauden beste taldeei laguntza emateko.

Transexualei buruzko datu ofizialik ez dago Malaysian. Baina oso ohikoa da emakume transgeneroak jatetxeetan edo dendetan lanean ikustea, batez ere Kuala Lumpur hiriburuan. Emakume horiek beldurrez akabatzen bizi dira, edozein momentutan erasoren bat jasan baitezakete. Ayubek berak kontatu digu duela gutxi emakume horietako bati sekulako jipoia eman zion erasotzaileari 100 dolar inguruko isuna besterik ez diotela ezarri. Askotan, erasoen biktimek ez dute ezer salatzen, ez diote Poliziari hots egin nahi. Ayuben elkarteak norengana joan esaten die, salaketa egin gabe gera ez dadin.

Ekintzailearen iritiz, transexualek Malaysian bizi duten egoera homosexualak jasaten dutena baino

su askotan sexu langile bihurtzea beste erremediorik ez dute izaten. Niten Chandra Odisha estatuko Gizarte Segurantzaren Departamenduko idazkariak esplikatutako bertako Gobernuak apirilean egin zuen ikerketa baten arabera, transexualen arazoek gora egin dutela azken bolada honetan. Pertsona horien bizitza hobetu nahian, transexualei gizarte zerbitzuak eskaintzea

erabaki dute, neurri hori hartzen duen Indiako lehen estatua izateko.

AEBetan lege aurreratuak dituzte, baina zaharkitutako eskemak buruan dituzten herritar asko da oraindik, komun publikoen erabileraren inguruan izan berri den debate zitalak erakutsi duenez. Thomas Coughlinek zortzi urte daramatza psikoterapeuta lanean eta azken urteotan

okerragoa da: «Zu izan zintezke gay edo lesbiana inor konturatu gabe. Baina normalean pertsona transgenero batek atentzioa deitzen du». Homosexualitatea ere zigortuta dago Malaysian: kartzela edo gorputz zigorra.

AEBetako Estatu Departamentuak Nisha Ayuben ausardia saritu berri du. Baita bere «erabateko gizatasuna» ere. 2014an, gizona emakumez jantztea debekatzen zien lege islamiar baten aurkako protestaldietan, sekulako protagonismoa izan zuen. Ekintzaileek garaipen historikotzat jotako erabaki batean, Auzitegi Gorenak azkenean esan zuen lege hura «zapaltzaile eta krudela» zela. Baina horrelako jarrerak garesti ordaintzen dira Malaysian, transexualei buruzko muturreko iritzien eta jarrearen aurka ezer egin nahi ez duen alderdi kontserbadore bat agintean duen herrialdean. Iaz kalean jipoitu zuten ezezagun batzuek, esaterako. Baina berak borrokari eutsi nahi dio. «Zergatik egon behar dut beldurtuta egia esateagatik?», galdetzen dio bere buruari.

Etxe Zuriak bere saria eman eta berehala, Polizia islamiarra agertu zen Kuala Lumpurren transgeneroentzat dirua biltzen duen bulego batean. Agentek utzi zuten kaosa ageri duen bideoak sekulako arrakasta izan zuen sare sozialetan. «Borroka ez da erraza izango», onartzen du. Dan Martin (Afp)



Arthur Brown etxeko sukaldean, aitarekin hizketan. Derek HENKLE | AFP

Niten Chandra Indiako Odisha estatuko Gizarte Segurantzako idazkariak esan du Gobernuak apirilean egin zuen ikerketa baten arabera, transexualen arazoek gora egin dutela

AEBetan lege aurreratuak dituzte, baina zaharkitutako eskemak dituzten herritar asko ere bai, komun publikoen erabileraren inguruko debateak erakutsi berri duenez



Washingtonen izan den bilakae-
ra ikusi ahal izan du: bazter guz-
tietako ateak itxita edukitzetik,
osasun sistema publikoaren ba-
besa eta pertsona ezagunenen
laguntza izatera pasa dira. «30
urte nituen neure trantsizioa
egin nuenean», kontatu du
orain 53 urte dituen transak. Di-
ru arazorik ez izateak erraztu
zizkion gauzak. Gurasoek ere
ondo hartu zuten trantsitua.
Orain bi urte ezkondu zen fran-
tsesa irakasten duen emakume
batekin.

OBAMAREN NEURRIAK

Whitman-Walker Health gober-
nuz kanpoko erakundearen zen-
tro batean egiten du lan orain
Coughlinek. Datu ofizialik ez da-
goen arren, berak gauzak alda-
tzen ari direla garbi ikusten du:
2008an 200 trans iritsi ziren
zentrora laguntza eske, eta aur-
ten jada 1.200 heldu dira.

Hain aldaketa ikusgarriak ba-
du zerikusirik Barack Obamaren
Gobernuak abian jarritako neu-
rri batzuekin. Medicaid osasun
sistema publikoak (pobrenei
laguntzen die) 2014az geroztik
ordaintzen ditu ebakuntzak eta

tratamenduak, eta, horren era-
ginez, gero eta herritar gehiago
hurbiltzen zaizkie.

Thomas Coughlinek nabar-
mentzen du pertsona ezagun
batzuen ekarpenak transgene-
roei emandako animoa. Caitlyn
Jenner aipatzen du: 1970eko ha-
markadan Olinpiar Jokoetako
dekatloi txapelduna izan zen,
Bruce izeneko gizona zenean.
2015ean kameren aurrean ema-
kume bihurtu zen. «Horrek se-
kulako eragina izan zuen trans
pertsonen beren burua onar ze-
zaten, eta gainerakoek transak
onar zitzaten», esan du.

Baina Ipar Carolinan kontrako
bidea hartu dute. Martxoan
onartu zuten lege baten arabe-
ra, emakume transexual batek
gizonezkoen komuna erabili be-
har du nahitaez. «Nire bezeroe-
kin hitz egin dut horrelako lege-
ek beraian eragiten duten
beldurrari eta zirrara emoziona-
lari buruz. Baita etorkizunean
izango duten eraginaz ere, edo
AEBetan era askean mugitzeko
transexualei geratuko zaizkien
aukeren inguruan». Bera eta
emaztea Ipar Carolinara joaten
ziren udan oporretara, baina

Pakistango Khyber
Pakhtunkhwa estatuko
emakume transgeneroen
protestaldia, joan den
maiatzaren 28an. Hiru egun
lehenago Alisha izeneko
sexu langilea hil zuten
tiroka. Afganistango
mugatik gertu dagoen
estatuan aurten gertatutako
bosgarren eraso izan zen.

Arif Ali | AFP

aurten beste lekuren batera jo-
ango dira, ez baitute oporretan
bartzertuta sentitu nahi.

ETXETIK NOIZ IRTEN KALKULATU

Komuna erabiltzeko arazoak
izateak asko baldintzatu dezake
edonoren bizitza. Arthur Brown
16 urteko mutila Chicagokoa da.
Bere gelako ikasle gehienek
merkataritza guneeetan ordu as-
ko egiten dituzte, baina aluare-
kin jaiotako mutilak bestelako
kalkuluak egin behar izaten di-
tu: «Etxetik noiz irten ondo kal-
kulatzen dut, leku publikoren
batean komunera joan beharrik
ez izateko».

**Europako Parlamentuak 1989ko ebazpen
batean transexualak baztertzea debekatu zuen,
baina 13 estatutan baino ez dago espresuki
debekatuta talde honen aurkako indarkeria**

**Minutu bateko isilunearekin gaitzetsi zuten
Santo Domingon Orlandoko sarraskia, baina,
aldi berean, emakume transgeneroei komuna
erabiltzea eragotzi zieten**

Pertsona transgenero batzuek
etxetik kanpo ez jan eta ez eda-
tea erabakitzen dute, komunera
joan beharrik ez izateko. Beste
batzuek komunak sexuaren ara-
bera bereizten ez dituzten le-
kuak aukeratzen dituzte. Brow-
nek «familientzako» komunak
dituzten lekuak ditu gustuko,
baina kasuren batean oso gaizki
hartu dute gainerako erabiltzai-
leek. Jennifer Leininger Chicago-
ko Lurie Umeen Erietxeko medi-
kuak esplikatu du egoera horrek
infekzioak eta bestelako osasun
arazoak eragiten dizkiela gazte
transgeneroei.

Erietxe berean egiten du lan
Robert Garofalok: «Askotan bai-
men bereziren bat idatzi behar
izaten dut nire paziente trans-
generoentzat, komunera sartze-
an Polizia etortzen bazaie erabil
dezaten».

ESKOLAKO KOMUNAK

Garofalok sekulako garrantzia
ematen dio eskola segurtasuna-
ri: «Ezin dugu irakaskuntzaz,
hazkundeaz edo garapen osa-
suntsuaz eztabaida egokirik
egin, ikasle bat bere segurtasu-
nagatik kezkatuta badago».

Brown joaten den eskolak ai-
patzeko moduko ahaleginak
egin ditu ikasle transgeneroen
egoerara egokitzeke. Illinois es-
tatuko Deerfield herrian dago
bere institutua. Komun «neu-
troak» prestatu dituzte bera be-
zalako ikasleek arropa aldatzeko
garaian arazorik izan ez deza-
ten: «Orain klasean kontzentra-
tzea lortzen dut eta lehen bizirik
nola atera beste konturik ez
nuen buruan, ez daukat kezkatu
beharrik gero gimnasia joan
behar dudala-eta».

Beste leku batzuetan, berriz,
atzera doaz. Amerikako Esta-
tuen Erakundeak Santo Damin-
go Dominikar Errepublikako hi-
riburuan egin berri du bere
batzarra (Orlandoko atentatua-
ren egun berean). Minutu bate-
ko isilunearekin gaitzetsi zuten
sarraskia, baina aldi berean per-
tsona transgeneroak baztertu
zitu zuten bilera egin zuten hote-
leko segurtasun arduradunek:
emakume transei komuna era-
biltzea saihestu zieten. Eskubi-
deak babestu beharrean...

COREY MAISON

AEB-ETAKO IPAR CAROLINA ESTATUKO NESKA TRANSEXUALA

«Une honetan kontrakoa sentitzen baduzu ere, zu berdingabea, ederra eta zoragarria zara, asko balio duzu; eta maitatua zara»

Corey Maison AEBetako Ipar Carolina estatuko neska bat da. 14 urte ditu eta The Bully Project elkartearen webgunean argitara emandako bideo baten bitartez bere sufrimenduaren berri eman du, eskolan jasandako jazarpenaren berri batez ere. Gainera, lehen pertsona eta oso hizkera erraza erabiliz, bere kasuan aurkitutako konponbidea kontatzen du, bere egoera berean dauden nerabeek ere sufrimenduaren amaiera, tunelaren bukaerako argia, ikus dezaten. Meg Bitton argazkilariak eman zuen hasiera batean Corey Maisonen sufrimenduaren berri. Bere nortasun sexualaren araberrako komuna erabiltzerik ez duela-eta, LGBT lesbiana, gay, bisexual eta transexualen komunitateak Ipar Carolina estatuari boikot egitera deitu du. Bruce Springsteen eta Ringo Starr bezalako rock izarrek bat egin dute bere kausarekin. Baita Pearl Jam rock taldeak ere. Testu honetan Corey Maisonek bere bideoan kontatzen duena jaso dugu:

Kaixo, Corey naiz eta 14 urte ditut. Orain pozik bizi naiz, baina beti ez da horrela izan. Betidanik jakin izan dut ni ezberdina nintzela. Txikia nintzenean, panpinekin jolastea gustatzen zitzaidan. Eta soinekoak janztea. Azazkalak margotzea ere gustuko nuen. Nire amaren takoiak erabiltzea ikaragarri gustatzen zitzaidan. Baina etxean baino ez nuen horrelakorik egiten. Kanpoan, sekula ez. Mutil jaio bainintzen.

Inoiz ez dut lagun askorik izan. Nesken artean ez nintzen eroso egoten, eta mutilek barre egiten zidaten. Eskolan, bosgarren kurtsoan jasan behar izan nuen eskola jazarpena ikaragarri gogorra izan zen. Ia egunero negarrez itzultzen nintzen etxera. Ni zigortzeko, gezurrak asmatzen zituzten beste ikasleek. Mutil batek esan zidan nire buruaz beste egin beharko nukeela, inoren gustuko ez nintzelako. Ni hilda



GAUR8

ere, nire falta ez zuela inork sentituko. Oso krudelak ziren. Hil egin nahi nuen.


Ondorioz, gurasoek eskola hartatik atera eta etxean hezi ninduten. Eskerrak. Nire amari galdetu nion ea posible zen bere soinekoa erabiltzea eta takoiak jantzita dendara jaistea. Baietz esan zidan. Horrelaxe egin nuen eta oso ondo sentitu nintzen, dendan zegoen emakume batek bere telefonoa hartu zuen arte: niri argazkiak egiten hasi zen. Beste emakume batek barre egiten zuen, niri begira. Erabat tuntu sentitu nintzen, pertsona arraro, moldatu gabea.

Egun batean amak esan zidan Interneten gauza bat ikusteko.

Jazz Jennings izeneko neska bati buruzko dokumentala zen. Neska ederra zen. Mutil jaiotako neska! Zera esan nion amari: «Ni bera bezalakoa naiz, neska bat naiz». Azkenean zentzua aurkitu nion: mutil baten gorputzean jaiotako neska bat naiz. Ez dut ezer gaizto edo txarrik, transgeneroa naiz. Beste ume transgenero batzuekin lan egiten duen sendagile bat aurkitu zuten gurasoek. Berak lagundu zidan mutil izatetik neska izatera doan trantsituan. Ilea hazten utzi eta neure burua makillatzen ikasi nuen. 14 urte bete nituenean, hormonak hartzen hasi nintzen, pubertarora neska moduan iristeko. Lehen dosia hartu nuen eguna izan zen ordura arteko nire egunik zorionekoena.

info+

Corey Maisonen bideoa, gaztelaniazko azpitituluekin:
<https://youtu.be/Bub1SFAW9w0>



Eskola publiko batera itzuli nahi nuela esan nien gurasoei. Beldurrez nengoen, baina nire burua horretarako prest nuela sentitzen nuen. Nire amak eskola txiki bat aurkitu zuen eta zuzendariarekin hitz egin zuen. Gizon zoragarria, %100 irekia. Nesken komuna erabiltzen ere utzi zidan. Eta nesken futbol taldean jolasten dut orain. Hain zoriontsu naiz orain. Ume guztiei esan nahi diet eskola jazarpena ez dagoela batere ondo. Esan nahi diet eskola jazarpena jasan duten pertsona guztiei, egoera hori ez dela betiko eta bere onera itzuliko dela. Une honetan kontrakoa sentitzen baduzu ere, zu berdingabea zara, ederra, zoragarria, asko balio duzu. Eta maitatua zara.